

Justiziak irabazi du!

Deia, 1983-08-13.

Nik neuk arnasa hartu dut. Ez zitalkeriaz gure herriaren arerioak sortu zuen LOAPA pozoitu hori suntsituta geratu delako.

Bai honexegatik ere, noski.

Baina beste zerbaiti nion beldur handiagoa: Estatuko erakunde goiengoa den Konstituzioko Hautitegiak presiopean porrot egiteari; justiziaren krisiari, saldukeriari, LOAPA bataila *bat baita eta Justizia berriz*, gerra.

Honek poztu nau, bataila eta gerra biak irabazi direlako.

Badakit, noski, sozialistekin eta fragistekin, zentralismo anker horrekin, beste gerrak sor daitezkeela, eta proba laster eman digute galtzen jakin ez duten sozialistek, gerrarako Guerra asko baita Madrileko gobernuan.

Orain zerak kezkatzen nau; ea geuk irabazten jakingo dugun.

Ez da, nire ustez, geu airez pustutzeko unea; jende asko da hemen eta Espainian zehar geure arrokeriak eragindako hitz puztuen eta irainen bila, errebantxismoa hor dago zain-zain; ez-genioke guhauk honetarako aitzekiarik inori eman behar. Egin dezatela berez erraieratik irtetzen zaiena, egiten hasi diren bezala eta oraindik egingo duten legez, baina ez ditezela justifikazio erraza litzatekeen gure hitz gaiztoaz baliatu.

Ez dakite Madrilen galtzen, hobe! Geuk ikasi, jakin behar dugu irabazten!

Garaikoetxearen serenitatea ageri da lehen erreakzioan; ez da nahikoa; denok lagundu behar genioke aurrerako bideak errazten; ez behintzat zepoak diren hitz erraz batzu aurretik bota, liraingarriak gutxiago, Madrileko lanak eta Guerrak berez dira eta zailak.

Justizia gurekin dugula ere askotan galdu dugu bataila eta gerra franko. Gure bertsolari handi batek esanda utzi zuen bezala, *arrazoiak* eta *indarrak* badute zerikusirik; begira, bestela, geure karlistadetan. Errepubliketan, Francopetan eta geroko lanetan gertatua. Gure kemenak, ditugun pitinak, administratu egin behar genituzke; nahiko lan izango dugu hala ere! Handiak eta kementsuak direnentzako luxuak dira horiek.

Geuk ezin dugu horrelako gasturik egin.

Gure jokoa bestelakoa behar luke izan; esan eta egin behar direnak, trinko, baina ez dago erraz apurtuko diguten muturra maizegi eta arinegi erakutsi beharrik; indarra askotan arrazoin baita!

Euskal bertsolariak ongi esan bezala:

*"Ez dugu arrazoirik,
gutxi garelako".*